



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EITB TALDEAREN OBRA, ZERBITZU, HORNIGAI ETA LANGILEEN KONTRATAZIOAREN FISKALIZAIO TXOSTENARENA, 1998KO URTEALDIARI DAGOKIONA.**

---

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta Euskal Irrati Tebelbista Erakunde Publikoaren (EITB) eta bere kudeaketa sozietateen (ETB, S.A eta E.I, S.A.), 1998ko urtealdiko fiskalizazioa mamitu du.

Fiskalizaziorik izan den aldian, EITBk bi langile finko kontratatu ditu eta aldibateko kontratuak egin dizkie beste 431 langileri.

Erakunde fiskalizatzaileak kontratazio mugagabeen zuzentasuna egiaztatu du. Aldibaterako kontratuei dagokienez, berriz, uste dugu lanpoltsa osatzeko prozedimenduek –gerora, langileak hautatzeko erabiltzen direnak-, eta aztertutako espedienteetan jasota dagoen dokumentazioak ez dutela bermatzen, fiskalizatutako urtealdian, sektore publikoan enplegua eskuratzeko eskagarri diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak.

EITB enteak eta bere kudeaketa sozietateek guztira 1998ko urtealdian egindako gastua obra, zerbitzu eta hornigaiak kontratatuzko, gutxi gora behera 58,9 milioi €koa izan da (9.804 milioi pezeta); horietatik 32,8 milioi € (5.460 milioi pezeta) ez zeuden publizitate eta lehia printzipioak betetzera behartuak, batik bat, egindako eragiketen izaera bereziaren ondorioz.

Nolanahi ere, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Seigarren Erabaki Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera printzipio hauek bete behar zituzketen hainbat kontratuk ez dituzte bete, edo ez da egiaztatu bete izana.